



## **'ZUZENeko ARTEAK RESET' PLATAFORMAK COVID 19ak ERAGINDAKO KRISIARI AURRE EGITEKO PROPOSATUTAKO NEURRIEN OINARRIZKO TAULA**

Zuzeneko arteen sektorea gizartea Covid 19ak eragindako larrialdi egoerari aurre egiteko burutzen ari den borrokarekin erabat konprometituta dago. Egoera honek guztion harremanak eta ekonomia nahasi ditu eta modu berezian nahigabetu ditu gaixo dauden pertsonak eta gure biziraupenaren oinarrizko konstanteak mantentzeko eta osasunaren alde lan egiten dutenak.

Gero eta gertuago dagoen itzuleraren esperoan, sormen egiturek jarduera behar dute interpreteak, musikariak, teknikariak, ibilgailuak, jatetxeak, antzokiak (bere alde teknikoarekin, programazioarekin, promozioarekin, etab.-ekin), aretoak, jaialdiak etab. mugiarazteko. Hauen inguruan enplegua sortu eta herrietako bizitza aberasten duten beste hainbat jarduera aurkitzen dira.

Jarduera da zuzeneko arteak berpizteko behar duguna. Bizi dugun egoera hau lehenbailehen itxiko den parentesi bat izan dadila eta ondoren jarduera handiko bizitza eta eskaintza kulturala berreraikitze aukera izatea. Garai berri horretan, gurea, egoera post traumatikoan egongo den gizartearentzat, lan terapeutikoa izango da. Baina aldez aurretik premiazkoa da bere sormen sarea eta bere profesionalak babestea

Gure erakundeek bultzatutako laguntza zehatza ere beharko dute zuzeneko arteek. Eta garrantzitsua da sare ekonomikoa, enpresariala edo gizarte egitura babesteko hartuko diren neurriekin batera, kulturak eta ekintza artistikoek giza eskubideetan, hezkuntzan eta gizarte kohesioan duten garrantzia nabarmentzea. Hau guztia pasako da eta garai berrirako funtsezko ekarpen bat egin nahi dugu: kolektiboa berreskuratzen lagundu, giza loturak berreskuratu eta berriro ere elkarrekin egotearen poztasuna bultzatu.

## 1. FASEA: ALARMA EGOERAN ZEHAR SORMEN SARE PRIBATUA MANTENDU

### Erakunde jasotzailea

### Proposatutako neurria

Instituzioen arteko mahaia

**1** Izaera orokorrean, administrazio publiko guztien konpromezua 2020. urterako zuzeneko arteetara bideratutako aurrekontuak aurrera eramateko. Ezintasun ala saturazioa izanez gero:

-Aurten aurrera eraman ezin diren jarduerak (emanaldien kontratuei arreta berezia jarritz) 2021. urterako birplanteatu behar izatea, jarduera horiei aurretiko tramitazio bat eginez.

-Egon diren soberakinak 2021. urteko zuzeneko arteen aktibitateetara gehitu.

Udaletxea

**2** Aurreikusitako zeuden arte eszenikoko funtzioen eta musika emanaldien aparteko kudeaketa azkartua:

2.1 Kontratatuta dauden eta data berri baten zain dauden atzeratuak izan diren funtzioak eta musika emanaldiak: %50aren ordainketaren aurrerapena egitea kontura.

Udaletxea

2.2 Bertan behera – ez atzeratuak- geratu diren funtzio eta musika emanaldiak: kontratuzko klausulen independentziaz, gutxienez %35arekin indemnitzatuak izan beharko dute, egituren gastu finkoak ordaintzeko.

Udaletxea

2.3 Funtzio eta emanaldi musikalak kontratatutako ez baina oinarrizko baldintzetan hitz egindakoak (ikuskitza, funtzioak, prezioa eta datak, atzeratuak izan beharko direnak): mantentzeko konpromisoa.

Etxepare

2.4 Bertan behera utzitako eta ezin berreskuratu daitezkeen kontratatutako nazioarteko funtzio eta emanaldi musikalak eta antolatzaileak kobratzen ez dituenak: egindako ordainketentzako estaldura bat.

**3** Sormen egiturentzako eta artista profesionalentzako babesa.

Estatua	3.1 Zuzeneko arteak, Eusko Jaurlaritzaren laguntza neurri ekonomikoen barruan hartzeko bermea, sektorearen ezaugarri berezietara egokituz.
EJ barne sailak	3.2 ERTEetara egokitu diren CNAE 9001-9004 egiturentzako aparteko laguntza bat ezarri bi hilabetez langileen soldaten baliokidea den kopuruarekin. Ziurgabetasun eta jardueraren hastapen motelaren egoeran laneratzea sustatzeko.
EJ barne sailak	3.3 Sorkuntza eta formakuntza egituren gastu finakoak ordaintzeko hornidura funtsa. Adibidez: komunikazioa, alokairua, amortizazioak etab. Erakundearen jarraipena ahalbidetzeko xedez.
EJ barne sailak - Lanbide	3.4 Gizarte Segurantzaren artisten erregimenean altan ez zeuden baina marku-kontratuen menpe zeuden interpreteentzat eta artistentzat subsidioaren estaldura. Gutxienez hiru hilabete.
EJ barne sailak - Lanbide	3.5 Azken baliabide gisa, RGI artistiko bat alarma egoerak irauten duen bitartean + 3 hilabete kontraturik gabeko profesionalentzat, eta langabeziaren estaldurik ezean aurreko sei hilabeteetan kontratatuak izan direla edo autonomo izan direnak adierazten dutenentzako.

---

Eusko Jaurlaritza	<p><b>4</b> Igorle diren sail guztietan diru laguntzen katalogoaren moldaketa gaur egungo egoerara.</p> <p>4.1 Egungo aginduen eta euren hainbat artikuluen ikerketa zehatza, arreta berezia jarriz eskaera, ekintza eta justifikazio egutegietan.</p> <p>4.2 Jardueren diru-laguntzetan, izandako gastuak ordaintzea ahalbideratzea, nahiz eta alarma egoera eta honen ondorioengatik ekintza ez burutu.</p> <p>4.3 Izan daitezkeen soberakinak, diru laguntzetara eta martxan dauden ekintzetara edo krisialdiari aurre egiteko martxan jarri daitezkeen laguntza ildoetara bideratu.</p> <p>4.4 Sorkuntza artistikoaren diru laguntzak handitu sorkuntzan eta/edo ekoizpenean eta salbuespen moduan, 2019an laguntza jaso zutenek ere 2020ko deialdira aurkeztu ahal izatea.</p> <p>4.5 Irrati kateen konpromezua lortu euren programazioan euskal musikaren presentzia handitzeko.</p>
-------------------	--

## 2. FASEA RESET: 2020-2021 BERPIZTEKO ZIKLOA.

### Erakunde jasotzailea

### Proposatutako neurria

EUDEL

5 Kaleko denboraldia ziurtatu.

Bertako administrazioaren konpromisoa bultzatu instituzioen arteko mahaitik, kaleko denboraldiari hasiera lehenbailehen emateko. Publikoan elkartzea baimentzen diguten egunetik, 15 egun igaro aurretik kontratuak eginez. Denboraldiaren hasiera iragartzeko, maila autonomikoan elkarrekin egindako kanpaina bati forma eman.

Instituzioen arteko mahaia

6 Inplikaturiko agenteen parte hartzearekin adostutako marko baten barruan aktibitate itzuli.

2020ko urritik 2021aren bukaera arte martxan egongo den aparteko plan bat egin eta apirilaren 30a baino lehen balioztatu. Ez ohiko plan horren helburua zuzeneko arteen berraktibatzea izango da. Horretarako, lan talde bat sortu, Instituzioen arteko mahaitik abiatuz eta adierazgarriak diren sektoreko agenteak inplikatu.

Eusko Jaurlaritza -  
Espainiako Gobernua

7 Erkidegoz gaindiko erakundeei helarazteko neurriak:

Espainiako Gobernua

7.1 Gizarte Segurantzaren kuoten gehiengo bonifikazioa, gutxienez 2021. ariketa amaitu arte.

Espainiako Gobernua

7.2 Ikuskizunen sarreraren BEZa %10etik %4ra murriztea.

Espainiako Gobernua

7.3 Zuzeneko ikuskizunekin erlazioa duten zerbitzu guztien BEZa %21etik %10era murriztea, erakunde publikoei fakturatzeko zaien ikuskizunen ordain sariak barne. Azken horiek BEZaren salbuespenak programazioaren lehen hamabi hilabeteetan beharko luke, estatuko programazioarekin berrinbertitzeko aretoaren konpromisoarekin.

Espainiako Gobernua	7.4 Enpresek 2020ko BEZaren eskaeraren itzulketa arintzea.
Espainiako Gobernua	7.5 Urteko lehen eta bigarren hiruhilekoaren BEZaren itzulketa, 2020ko urtarrilaren urteko itxierari itxaron behar gabe.
Espainiako Gobernua	7.6 COVID-19aren eragina izan duen epean deskontua 2020ko IAEn abonuaaren kalkuluan.
Espainiako Gobernua - Udaletxeak	7.7 Egitura kreatiboetan eta kontzertu aretoetan, IBIaren ordainketaren murriztu edo deuseztatu.
Espainiako Gobernua	7.8 Alor publikoko Kontratuen legearen aldatzea, <i>La Red Españolaren</i> proposamenak adierazten duen zentzuan, kontratazio artistikoen berezitasunera egokitzeko.
SGAE	7.9 SGAE n pilatutako Egile eskubideen ordainketak aurreratzea, horrela eskatzen duenari, sei hilabeteko likidazioa itxaron gabe.